

Nola detektatu ludopatia fizarte zerbitzuen arloan?

**LANGILEENTZAKO
GIDA PRAKTIKOA**



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



lu
dio
pa
tia



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako
Foru Aldundia
Diputación
Foral de Alava



AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Zer da Ludopatia?	1
2.1. Diagnostikoa egiteko irizpideak	2
• DSM-IV (APA, 1995)	2
• CIE-10 (OMS, 1993)	2
2.2. Joko-motak	3
• 2005.ean jokoan gastatutakoa	4
• Internet bidezko jokoak	4
• On Line edo Sareko jokoaren Espainiako Lege Esparrua	5
• Internauten profil Soziodemografikoa	5
2.3. Datu Epidemiologikoak	6
3. Jokalari patologikoaren eta haren senitartekoen garapen aldiak	8
3.1. Jokalari patologikoaren aldiak	8
3.2. Senitartekoen aldiak	9
4. Joko patologikoa eta alkoholarekiko eta bestelako drogekiko mendekotasuna ...	9
4.1. Jokalari patologikoen alkohol edo beste droga batzuen kontsumoa	9
4.2. Alkohol edo beste droga batzuekiko mendekotasuna duten pertsonengan joko patologikoak zenbateraino eragiten duen	10
5. Joko patologikoaren ondorioak	11
6. Joko patologikoa detektatzea	12
7. Ludopatia Gizarte Zerbitzuetan	12
7.1. Gizarte Zerbitzuetan Ludopatia kasu bati ekiteko jarraibideak	13
7.2. Diagnostikoa	14
• Jokoarekiko jokabideari buruzko informazioko galdetegia	14
• Ludopatia detektatzeko eskala txikia	15
8. Baliabideak	16
8.1. Tratamendua	16
8.2. Bingo eta kasinoetara sartzeko norik bere buruari debekua ezartzea	16
9. Joko-araudiak	18

I. SARRERA

Gizarte Zerbitzuetako profesionalei zuzendutako Gidaliburua da honakoa. Honetan, Jokoarekiko Mendekotasunaren, edo jendartean ezagutzen den Ludopatiaren inguruko hainbat alderdi jaso dira.

Gizarte Zerbitzuetara jokoarekin zerikusirik duten baina estali samar heltzen diren egoera arazotsuak ematen ari direlako sortu da. Izan ere, askotan, Ludopatia ez da detektatzen.

Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten profesionalei tresnak helaraztea da material honen xedea, Ludopatiaren diagnostiko goiztiarra egin eta horri ekiteko jarraibideak bideratze aldera.

2. ZER DA LUDOPATIA?

Pertsona gehienentzat **ausazko edo diru jokoak** jarduera arrunta izan arren, kontrolatu ezin duten jokabidea bilakatzen da jokalarri patologikoen kasuan.

Jokatu gabe egon edo jokatzeari uzteko gaitasuna ez izatean datza Ludopatia edo Joko Patologikoa. Arazo hau duten pertsonak ezaugarri orokor batzuk dituzte: **ezin diote jokatzeko nahiari eutsi, gero eta urduriago jartzen dira eta tentsio handia sentitzen dute jolastera joan baino lehen eta, jokatzan hasten direnean, plazerra eta lasaitasuna sentitzen dute.** Jokabide hauek guztiak, poliki-poliki ludopatiaren **bizitzaren alderdi desberdinak eraldatzen dituzte, besteak beste, hezkuntza, lan, ekonomia, familia edo gizarte mailakoak.**

OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) ludopatia arazotzat hartzen du, honako ezaugarri honekin: **“apustu-jokoei lotutako gertakarien presentzia, maiz eta behin eta berriz; gertakari horiek gaixoaren bizitza menperatzen dute, bere balioen eta gizarte, lan, material eta familia beharren kaltetan. (...) Jokabide honek irauten du eta, askotan, gehiagora egiten du, kontrako ondorio sozialak izan arren; esaterako, norberaren aberastasunak galtzea, familiaren arteko harremanen hondamena eta norberaren egoera kritikoak”** (OME, 1992).

2.1. DIAGNOSTIKOA EGITEKO IRIZPIDEAK

JOKO PATOLOGIKOA DIAGNOSTIKATZEKO DSM-IV IRIZPIDEAK. **(Amerikako Psikiatria Elkarte, 1995)**

- A** Jokoarekiko jokabide kaltegarria eta iraunkorra da joko patologikoa eta egoera hauetatik gutxienez bost elkartzen direnean ematen da:
- Kezka jokoarengatik.
 - Gero eta diru kopuru handiagoak jokatzeko beharra, nahi den kitzikatze maila lortzeko.
 - Jokoa kontrolatzeko, eteteko edo gelditzeko ahaleginek behin eta berriz porrot egitea.
 - Jokoa eten nahi denean ezinegona edo haserrea.
 - Jokoa arazoei ihes egiteko edo gogogabetasunari aurre egiteko estrategia moduan erabiltzen da.
 - Jokoa dirua galdu eta gero, hori berreskuratzeko berririo jokatzeari.
 - Etxeko kideak, terapeutak edo beste pertsona batzuk engainatzea, jokoarekin dagoen inplikazio maila ezkutatzeko.
 - Jokoa finantzatzeko legez kanpoko ekintzak egiten dira, hala nola, faltsifikazioak, iruzurrak, lapurretak eta konfiantza gehiegikeriak.
 - Jokoaren ondorioz pertsonen arteko harreman garrantzitsuak, lana edo aukera profesionalak arriskuan jarri edo galdu egin dira.
 - Jokoaren ondorioz sortutako egoera finantzario larria arintzeko gainerakoak behin eta berriz engainatzea.
- B** Jokoarekiko jokabidea ez dago Manialdiari lotuta.

JOKO PATOLOGIKOA DIAGNOSTIKATZEKO CIE-10 IRIZPIDEAK. **(Osasunaren Mundu Erakundea, 1993)**

- A** Urtebeteko epean gutxienez bitan edo gehiagotan gertatzea.
- B** Egoera hauetan pertsonak ez du onura ekonomikorik lortzen eta, hala ere, behin eta berriz ematen dira gizartearekiko harremanetarako edo lanerako arriskutsuak badira, eta konpromiso pertsonalak arriskuan jartzen baditu ere.
- C** Jokatzeko grina handia duela eta kontrolatzea oso zaila egiten zaiola esaten du gizabanakoak. Gainera, bakarrik borondateak aginduta jolasteko gai ez dela onartzen du.
- D** Jolastearekin edo inguruko egoerekin zerikusirik duten pentsamenduek edo irudi mentalek kezkatu egiten dute.

2.2. JOKO MOTAK

Ludopatiaz ari garenean, ausazko eta diruzko jokoez ari gara.

Gizakiaren historia bera bezain zaharra da ausazko jokoarekiko zaletasuna, gizarte orotan, zaharrenetatik modernoenetara, izan baita apustu bidezko jokoa. Hainbat milaka urte egin behar dugu atzera, jokoaren lehen seinaleak aurkitzeko, eta dirua baino mila urte lehenago asmatu omen zen.

Espanian, izugarri areagotu zen jolasarekiko zaletasuna Urrezko Mendean zehar, eta 1763. urtean, berriz, loteria ezarri zuen Carlos III.ak. Azpimarratu behar da 1811. urtean Cadizko Gordeek Espainian sortu zuten Loteria, egun 1937.etik dirauen Loteria Nazional bera dela. 1938tik 1939ra bitarteko urteetan Once erakundearen kupoia sortu eta arautu zen. Erakunde hori pribatua bada ere, herri-aginteen kontrol eta tutoretzapean aritzen da. 1946an, ordea, Futboleko Kinielak azaldu ziren.

Hiru joko hauek baino ez ziren legezkoak izan Espainian 1977. urtera arte. 1977. urtean, aldaketa kualitatiboa eman zen, Jokoari buruzko Errege Lege Dekretuaren (otsailaren 25eko 15/1977) bitartez bestelako jokoak onartu eta gure herrialdeko jokoen katalogo berria osatu zenean (444/1977 Dekretua). Horren ondoren, egun ezagutzen ditugun joko guztiak sortzen joan dira.

1. taula honetan, 1977az gerostik sortutako jokoak eta horien sorrera-urtea laburbiltzen dira.

IZENA	SORRERA URTEA
KASINOAK	1977
BINGOAK	1977
JOLAS ETA AUSAZKO MAKINAK	1981
LOTERIA PRIMITIBOA	1986
CUPONAZOA	1987
BONOLOTOA	1988
HOROSKOPOAREN LOTERIA	1991
GORDOA	1993
ASTEBURUKO SUPERKUPOIA	1999
BONOKUPOIA	2002
EUROMILIOIAK	2004
KINIGOLA	2005
ZALDI LASTERKETETAKO APUSTUAK*	2005
ONCE-REN RASCA	2005
COMBOA	2006

* Bereak ditu Euskal Autonomia Erkidegoak dira 1995az gerostik, Zaldi Lasterketetako Apustuen inguruko eskumenak.

Kudeaketa-motaren arabera sailkatzen dira ausazko jokoak:

- **JOKO PUBLIKOAK:** Estatuak kudeatzen ditu, Estatuko Loteria eta Apustuen Nazio Erakundearen (LAE) eskutik. Tartean honako hauek daude: Loteria Nazionala, Primitiboa, Bonolotoa, Gordoa, Euromilioiak, Kiniela, Kinigola eta Zaldi-lasterketetako Apustuak.
- **JOKO PRIBATUAK:** Administrazioaren baimena lortu ondoren, enpresa pribatuek kudeatzen dituztenak dira. Horretarako espresuki egokitutako aretoetan garatzen dira. Pribatuen artean, beraz, honako hauek ditugu: Bingoak, Kasinoak eta Jolas eta/edo Ausazko Makinak.
- **ONCE:** Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren administrazio-baimen bereziarekin kudeatzen direnak dira. Hauen artean, kupoi ezagunaren aldagai ezberdinak barne hartzen dira: Cuponazoa, Bonokupoa, Rasca, Comboa).

2005. URTEAN JOKOAN GASTATUTAKOIA

Barne Ministerioaren Txostena baten arabera, 28.335 milioi euro gastatu dituzte espainiarrek jokoetan 2005. urtean. Sektore pribatuak gastuaren %60 bereganatu zuten. Ehunekorik altuena jolas eta ausazko makinetan eman zen (%33,8), eta ondoren, loteria nazionalan (%18,5), Bingoetan (%13,6), Kasinoetan (%8,6), Loteria Primitiboan (%7,9), Once-ren jokoetan (%7,2) eta Kinielan (%1,7). Azken 5 urteotan, %6an egin dute gora kudeaketa pribatuko jokoek, Estatuaren loteriek %23,31 gehiago saldu dute eta Once-k, ostera, %17,63 gutxiago. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle bakoitzak, batzaz beste, 642 euro gastatu ditu.

■ **2005, URTERAKO JOKO ESKAINTZA:** Loteria Nazionala, Primitiboa, Bonolotoa, Gordoa, Euromilioiak, Kiniela, Kinigola, Zaldi-lasterketetako apustuak, Once (hainbat joko), Jolas eta Ausazko Makinak, Bingoak, Kasinoak. Eskaintza pribatuak honako hauek ditu jendearen eskura: 37 Kasino, 447 Bingo-areto, A motako 115.159 Jolas Makina eta B motako 245.966. Honako hauetan ez ditugu interneten dauden ausazko jokoak barne hartu.

INTERNET BIDEZKO AUSAZKO JOKOAK

Gaur egun, Sareko Kirol Apustuak, Sareko Jokoak, Kasinoa, Bingoa eta Txanponjaleak aurki ditzake Interneten, ausazko jokoetan apustuak egin nahi dituenak.

Sare bidezko jokoen salmentako bide ofizial bakarra, Estatuko Loteria eta Apustuen Erakundeak jartzen du hiritarren eskura. Jokorik gogokoena aukeratu eta txarteleko

zenbakiak markatu baino ez da egin behar apustua egiteko. Primitibo, Bonoloto, Gordo, Euromiloi, Kiniela eta Kinigoleko apustuak egin daitezke.

Espanian ohiko apustuek (fisikoak) duten garrantziaren ondorioz, mintegi aproposa da gure herrialdea internet bidezko apustuentzat. Sareko apustuen atariak indar handiz sartu eta merkatu-maila garrantzitsuan kokatuko dira, jolasteko aukera interaktibo berriak eskaini, merkatua dinamizatu eta aukeren eskaintza areagotu egiten baitituzte.

Kalkuluen arabera, Espanian hiru milioi bat pertsonak jokatzen dute Internet bidez, urteko hazkundera % 137koa izan dela. INTERNET BIDEZKO KIROL APUSTULARIEN ESPAINIAKO ELKARTEAREN arabera, urtean 255 milioi euro mugitzen dira eta hedabideetan, 33 milioi euroko promoziotan inbertitzen da.

ONLINE EDO SAREKO JOKOAREN ESPAINIAKO LEGE ESPARRUA

Espanian ez dago ezer araututa honelako jokoaren inguruan. Oraindik orain, ez da Internet bidezko apustuentzako baimenik eman. Espanian dihardutenak ez dira legez existitzen, beste herrialde batzuetan kokatutako zerbitzarien bidez egiten dutelako, eta horietan legezkoa izaten da. Horietako asko Erdialdeko Amerikako edo Karibeko paradisu fiskaletan egoten dira. European, berriz, bakarrik Erresuma Batuan, Maltan eta Finlandian daude baimenduta. Honelako jarduerak AEBetan garatzen dituzten enpresek egindako kalkuluen arabera, negozioak Estatuaren diru-kutxetara 900 milioi dolar ekartzeko moduko zergak sor litzake.

Nolanahi ere, Euskadin badago Sareko jokoaren arautzen duen araudirik. Ekasa elkartearen bildutako jolas eta ausazko makinaren ehun bat enpresaburuk, apustu-etxeekin, internet bidezko apustuekin eta abarrekin zerikusirik duen oro ustiatzeko hitzarmena sinatu du britainiar konpainia batekin. Ingelesekin esperientzia jarriko dute, eta euskaldunek, ordea, self-service erako apustu-frogagailu berri bat. Azken honen bidez, eskainiko dituen kirol- eta gizarte-apustu ezberdinetan jokatu ahal izango du jokalaria. Gutxi barru, kirol-apustuak baliozkotzeko makina berri bat jarriko dute ostalaritzako establezimenduetan, ohiko jolas-makina eta txanponjaleen ondoan.

INTERNAUTEN PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

Estatistikako Institutu Nazionalarenak ("Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietarako Etxeetako Ekipamenduak eta horiei ematen zaien erabilera" -IKT-E 2005, 2. galdeketa) dira hemen azalduko ditugun datuak. Horien arabera, 17.776.320koa da, inoiz Internetera sartu diren 15 urtetik gorako pertsonen kopurua, hau da, guztizko

biztanleen %48,3. Internatuen %53 gizonezkoak dira, eta emakumezkoak, berriz, %44. Zenbat eta gazteago, orduan eta internauta-kopuru handiagoa. 15 eta 24 urte bitarteko gazteen ia %90ak erabili du noizbait Internet, eta ikasleen %95ak baino gehiagok. Ikasketa-maila altuagoa duten pertsonak sareratzen dira gehin: unibertsitate-ikasketak dituztenen ia %90 sartu inoiz interneten.

Teknologia Berrien aurrerapenaren bitartez, gero eta adin txikiko gehiago hasten da jokatzeko. Ordu asko ematen dute gazteek interneten bazterrak nahasten eta sarean, 24 orduz irekita egoten diren apustu-etxeak daude. Kasinoek 1000 ¤ko oparia egiten dute hastean eta apustuak egiteko topaketak antolatzen dituzten taldeak sortzen dira txatetan. Adin txikikoak inolako arazorik gabe sartu ahal dira honelako orrietara, sarbidea ez dagoelako kontrolatuta. Gurasoen kreditu-txartelaren zenbakia hartu baino ez dute egin behar, horren bitartez nahi beste gastatu ahalko baitute inolako arazorik gabe.

2.3. DATU EPIDEMIOLOGIKOAK

Estatuko (Echeburúa, 1990) zein atzerriko (Rosencrance, 1988) hainbat egilek egindako estimazioen arabera, altua da Espainiako jokalaria patologikoen tasa. Eta hori, bertan dagoen joko-kopurua handia delako eta gizarteak onartu egiten duelako. Gainera, ofizialki ere sustatzen da, sustatu jokoak (Loteria Nazionala, Bonolotoa,...).

Labrador eta Ochoa-rena (1994) bezalako kalkulu kontserbadorearen arabera, 18 urtetik gorako helduen arteko jokalaria patologikoen tasa %1tik eta %1,5era bitartekoa da, eta arazoa duten jokalariena, ostera, %2,5ekoa.

Javier Fernández Montalvok (2006) dioenez, biztanleen %2tik %3ra bitartekoa da joko patologikoaren prebalentzia-tasa. Biztanleen %3tik %5era jokoarekin arazoak izan eta edozein unetan ludopata izatera hel daitezke. Gehiago ematen da patologia hau gizonezkoen artean, emakumezkoengan baino (proportzioa: 60/40), baina tratamendu bat hasterakoan, 10/1-ekoa da proportzioa. Gero eta gaixo gazteago dago ludopatia-arazo larriekin, eta baita jokatzeko gutxieneko adinetik beherako nerabeen artean ere. Hauek, oro har, jolas-makinekin hasi eta apustuetako makinekin jarraitzen dute.

Bi azterlan burutu ditu Errehabilitazioan dauden Arabako Jokalarien Elkarteak honen inguruan, eta honako datu eta ondorio hauek nabarmen daitezke horietan:

JOKOAREKIKO MENDEKOTASUNAREN PREBALENTZIARI BURUZKO AZTERLANA ARABAN (2000).

- Arabako biztanleen %0,8 dago ludopatiak jota, hau da, 1674 arabar. Familia kontuan hartuz gero, 5.000 inguru dago arazo honen eraginpean.
- Helduen %14,4 bideo-joko, bideo-kontsola eta antzekoetan aritzen da. 18 eta 29 urte bitartekoen artean gora egiten du portzentaje honek, hots, %37,33ra heltzen da.
- Arabarren %86,3ak jokatu egiten du.
- Jokatzeko motibazio nagusia, ekonomikoa da (%68). Entretenezko aitzakia ere garrantzitsua da (%21,4).

ARABAN TRATAMENDUAN DAUDEN PERTSONEN ESKARIARI ETA EZAUGARRIARI BURUZKO AZTERLANA (2001-2002).

- Kontuan hartzen badugu eraginpean dagoen biztanle-kopuruak arabarren %0,8 (1674 pertsona) barne hartzen duela, errehabilitazio-prozesuren bat hasten duten pertsonen kopurua oso txikia dela (bakarrik, %9,2) da atera daitekeen ondorioetako bat.
- Ezberdintasunak daude emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Galdetegiari erantzun dioten pertsonen artean %7,15 emakumezkoak dira, eta beraz, gaixo dauden emakumeen %2,31 baino ez dago tratamenduan.
- Makina txanponjaleak dira gehienek duten arazoa (%79,21).
- Gehienbat, 18 eta 29 urte bitartean hasten dira, baina %33,75ak, 10 eta 17 urteko adinarekin hasten dira.
- %56,20ak alkohola edaten du, eta %14,53ak arazoak izan ditu alkoholarekin.
- %6,72ak beste substantziaren batekin izan ditu arazoak edo horren aurkako tratamenduan egon da.
- %55,98ak bestelako nahasteak (antsietatea eta depresioa) jasaten dituzte, eta %19,87ak sendagaiak hartzen ditu.
- %23,79ak tratamendua utzi du.

3. JOKALARI PATOLOGIKOAREN ETA HAREN SENITARTEKOEN GARAPEN ALDIAK

Oro har, jokalaria eta haren senitartekoak aldi ezberdinetatik pasatzen dira, hurbileneko ahaideek Ludopatiaren ondorioak jasaten baitituzte. Zuzenean eragiten diete zailtasun ekonomikoek, eta bere familia-bizitza nabarmen hondatzen da. Beraz, jokalaria patologiaren garapen aldiak, eta aldi berean, haren senitartekoek jasaten dituztenak azalduko ditugu.

3.1. JOKALARI PATOLOGIKOAREN ALDIAK

IRABAZIEN ALDIA	GALEREN ALDIA	ETSIPEN ALDIA
<p>Gutxi jolasten du oraindik pertsonak.</p> <p>Irabaziei garrantzia eman eta galerei, ordea, kendu egiten die. Honela, hobetu egiten da honen baikortasuna eta autoestimazioa.</p>	<p>Baikortasunari esker, gero eta denbora gehiago ematen du jokatzen eta gero eta diru gehiago jokatzen du.</p> <p>Jokalariak diru dena galtzen duenean, beste iturri batzuetara jo behar izaten du (familia, banketxea,...), eta zorrek izugarri gora egiten dutenean, jokoan ikusten du zorrak ordaintzeko irtenbide bakarra; galdutakoa berreskuratzeko jokatzen du.</p> <p>Une honetan aitortu behar izaten du arazoa jokalaria eta, utziko diola agindu ere egiten du, baina honek oso gutxi irauten du, dirua lortu eta behera hasten baita jokatzen.</p>	<p>Bakar-bakarrik jolasteko bizi da jokalaria. Ez da ez familiaz, ez lagunez ez lanaz arduratzen.</p> <p>Horrexegatik, gero arazo ekonomiko eta legal handiagoak izateko arriskua dauka.</p> <p>Aldi honetan, psikologikoki zein fisikoki neka-neka eginda eta guztiz etsituta sentitzen dira.</p> <p>Une honetara heltzerakoan, aukera gutxi ikusten ditu pertsonak: bere buruarekin beste egitea, kartzela, ihes egitea edo laguntza eskatzea.</p>

3.2. JOKALARIAREN SENITARTEKOEN ALDIAK

UKAZIOAREN ALDIA	ESTRESAREN ALDIA	NEKEAREN ALDIA
<p>Senitartekoaren jokabide hori (bereziki bikote-languna denean) aldi baterakoa eta garrantzirik gabeko izango dela pentsatzen da; denbora pasatzeko beste modu bat dela, eta denborarekin ahaztuko duela.</p> <p>Arazoa ez da ikusi nahi izaten.</p> <p>Urteak iraun ditzake aldi honek, jokalariai ondo baino hobeto engainatu eta ezkututzen baitu oro..</p>	<p>Arazo ekonomikoak agertzen direnean, jokalaria etxetik kanpo egon ohi da, ukatzeko aldia amaitu egiten da.</p> <p>Pertsonari arazoa konpontzen laguntzen saiatzen dira senitartekoak, eta aldi berean, frustrazio, gaitzondoa eta antsietate-maila altuak sentitu eta etengabeko eztabaidak izaten dituzte.</p>	<p>Larritasuna, nahastea, nekea...</p> <p>Nahaste psikologikoak eta psikobiologikoak azal daitezke; familiaren arlo guztiei eragiten die jokabideak.</p> <p>Errudun, amorr, depresio eta gaitzondoko sentimenduak.</p>

4. JOKO PATOLOGIKOA ETA ALKOHOLAREKIKO ETA BESTELAKO DROGEKIKO MENDEKOTASUNA

Joko patologikoaren eta droga gehiegi hartzean arteko harremanari buruzko analisiaren eta azterketaren ondorioz, arazo hauen arteko harreman handia dela esan daiteke, eta bereziki, joko patologikoaren eta alkohol gehiegi edatearen artekoa. Bi ikuspegitatik ekin zaio arazo honen azterketari:

4.1. JOKALARI PATOLOGIKOEN ALKOHOL EDO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOA

Egindako azterketa gehienek agerian jartzen dute jokalariai patologiko askok alkohol gehiegi edaten dutela. %15aren ingurukoa da jokalariai patologikoaren artean, alkohol edo bestelako droga gehiegi hartzen dutenen prebalentzia-tasa, baina azterlan baten arabera, kopuru hori %45eraino hel daiteke. Bateratasun hau gizonezkoengan zein emakumezkoengan eman da.

Gai honi buruz dagoen azterlanik zehatzenetako bat, Ramírez, McCormick eta Taber (1983) psikologoek egindakoa da. Azterlan honetan, jokalariai patologikoaren %39ak,

tratamendu-programa baten onartu aurreko urtean, alkohol edo droga gehiegi hartzen diren neurtzeko erabiltzen diren Research Diagnostic Criteria (RDC) izeneko irizpide guztiak betetzen zituen. Gainera, jokalarien %50ak, guraso biologikoei alkohol edo bestelako drogekiko arazoak zituztela onartu zuen, eta horien herenak, anai-arrebaren batek arazo berak zituela. Aipatu beharreko beste datu bat: une horretan alkohol edo droga gehiegi hartzen duten jokalarien ia %100ak, depresio-arazoak zituen.

Beste datu garrantzitsu bat ere badago, gaixoago daudela alkohol eta bestelako substantzia toxikoak hartzen dituzten jokalariai (Ciarrocchi, 1987). Gainera, alkohola eta bestelako drogak hartzeak eragin handia izaten du berriro hasteko arriskuan, pertsonak bere buruarengan duten kontrola murriztu egiten baitute substantzia horiek.

2005. urtean 74 izan ziren ASAJERek artatu eta terapeutikoki tratatu zituzten pertsonak. Horietatik, %24ak alkohol gehiegi edaten zuen eta %17, iraganean alkoholarekiko arazoren bat izandakoak ziren. %22ak bestelako substantziak (haxixa eta kokaina) hartzen zituzten, eta horietatik %44ak sarritan hartzen zituen eta %12ak mendekotasun-arazoak zituen.

4.2. ALKOHOL EDO BESTE DROGA BATZUEKIKO MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENGAN JOKO PATOLOGIKOAK ZENBATERAINO ERAGITEN DUEN

Hainbat dira alkohol eta bestelako drogekiko mendekotasuna duten pertsonen artean, jokoaren eragina handia dela adierazten duten azterlanak.

Horien artean, Lesieurek, Blumek eta Zoppak (1986) egindakoa barne hartzen da. Tratamenduan dauden eta diagnostiko nagusizat alkohol edo droga gehiegi hartzeak zuten 458 gaixo barne hartzen du lan horretako laginak. Emaizten ondorioz ikusi zen, horien artean %10 jokalaria patologikoak zirela eta %9, jokoarekin arazoak zituzten jokalariai zirela. Egile hauek egiaztatu zuten, halaber, bakarrik alkohol gehiegi hartzeagatik tratatutako gaixoei, joera gutxiago erakusten zutela joko patologikorako, alkohol eta droga gehiegi hartzeagatik edo alkohola ez ziren drogak hartzeagatik tratatutakoak baino. Azterlan honetan ere lotura handia ikusten da jokoaren eta familiaren artean: jokalaria patologikoak ziren gurasoak zituzten gaixoen %39, jokalaria patologikoak ziren eurak ere.

Espanian Rodríguez-Martosen (1989) azterlana nabarmendu behar da. Honetan, alkohol gehiegi edateagatik tratamenduan dauden gaixoei joko patologikorako irizpideak

betetzen dituztela egiaztatzen da. Emaitzek adierazten dutenez, gainera, honako hauengan ematen da gehienbat joko patologikoa: senitartekoez gehiegi jokatzeko azaldu dutenengan, jolasten goiz hasi direnengan eta droga anitzekiko mendekotasuna dutenengan.

Ondorengo berrikuspen batean, honako hau ezarri zuten Lesieur eta Rosenthal (1991) maisuek: alkohol edo droga gehiegi hartzen duten eta tratamendu batean baino gehiagotan dauden gaixoen %7tik %25era bitartean, jokalaritza patologikoa iratekeela. Ehunekoak oso kezkarriak dira, eta are gehiago kontuan hartzen badugu sarri gertatzen ohi dela alkoholarekin arazoak dituzten jokalariek, edateari uztean, jokalaritza patologikoa bihurtu daitezkeela (Lesieur eta Heineman, 1988).

5. JOKO PATOLOGIKOAREN ONDORIOAK

PSIKOLOGIA ARLOA	GIZARTE ARLOA
<ul style="list-style-type: none"> • Suminkortasuna • Apatia eta depresioa • Tentsio emozionala • Autoestimazio baxua • Errudun-sentimendua • Nork bere buruz beste egiteko ideiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bakartzea • Zaletasunik eza • Lagunengandik urruntzea
FAMILIA ARLOA	LAN ARLOA
<ul style="list-style-type: none"> • Gezurrak etengabean • Mesfidantza-giroa • Komunikazioa eten egiten da 	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta murrizten da • Kontzentrazioa murrizten da • Laneko errendimendua murrizten da
EKONOMIA ARLOA	ARLO SOMATIKOA
<ul style="list-style-type: none"> • Zor handiak • Ez dira ordainketak egiten • Pobretzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Insomnioa • Jangurarik eza • Buruko minak • Urdaileko minak...

6. JOKO PATOLOGIKOA DETEKTATZEA

JOKABIDEEI DAGOKIENEZ
<ul style="list-style-type: none">• Gehiegi jokatu eta gastatzea.• Pentsatutakoak baino apustu handiagoak egitea.• Jokatzeari uzteko zailtasunak.• Jokoaren arabera egiten dira gainerako ekintza guztiak.• Gezurrak.
PENTSAMENDUEI DAGOKIENEZ
<ul style="list-style-type: none">• Berrir jokatzeko hasteko pentsamendu negatiboak.• Jokoa kontrolatu izanaren pentsamendua: norberaren menpe dago irabazi edo galtzea.
PSIKOLOGIKOKI
<ul style="list-style-type: none">• Suminkortasuna, oldarkortasuna, lotsa, errudun-sentimenduak, urduritasuna, umore-aldaketak,...
FISIKOKI
<ul style="list-style-type: none">• Arazo psikosomatikoak.• Abstinentzia-sindromea eman daiteke.

7. LUDOPATIA GIZARTE ZERBITZUETAN

Askotan, alkoholarekiko arazoek, depresioak, antsietateak, arazo ekonomikoek, familia-arazoek eta abarrek jokoarekiko arazoak ezkututzen dituzte, eta ez dute egiazko arazoa ikusten uzten. Gerta daiteke gizarte-zerbitzuetako profesionalen bulegoetara goian aipatutako sintoma horiek eta hitzez aipatu ezin duten jokoarekiko arazoak dituzten pertsonak heltzea, eta horriek guztiak, detektatzea eragozten dute.

Oso gutxi azaltzen da Ludopatia Gizarte Zerbitzuetan. Gizarte-langileei ludopatiaren inguruko eskaririk heltzen zaizkien galdetean, erantzuna "oso noizbehinka" izaten da. Badago ASAJERek, Araban tratamenduan zeuden pertsonen ezaugarri psiko-sozio-demografikoak jakiteko egin zuen azterlanean (2001-2002) egiaztatzen den beste datu bat: Gizarte Zerbitzuek oso gaixo gutxi igortzen zituzten tratamendu-zentroetara.

ASAJERek, elkartera laguntza bila etorri diren pertsonen bitartez beste datu bat ere egiaztatu ahal izan du, hau da, gaixoen Gizarte Emergentziazko Laguntza edo antzeko beste laguntzaren bat jaso ezean, oso pertsona gutxi joaten direla gizarte-zerbitzuetara eta joaten badira, ludopatia "mozorro" egiten dutela, beste arazoren bat aipatuz, hau da, Alkoholismoa, Drogamenpekotasuna, Antsietatea, Depresioa, Estresa, Arazo Ekonomikoak, Bikoteko Arazoak edo Familia Arazoak...

Gizarte Zerbitzuetako profesionalak izaten duten zailtasun handiena, lotsa eta ludopatia-arazoak aitortzeko ezintasuna izaten dira, eta horiek, gaixoez zein senitartekoez azaltzen dituzte.

Detekzio goiztiarra beste zailtasun bat bezala azaltzen da.

Azkenik, beste pertsona batzuentzako laguntzak bideratzerakoan, eragin handia dauka Ludopatiarengana gizarteak azaltzen duen kontzientziarioa txikiak. Izan ere, inoiz ez da Gizarte Zerbitzuak ludopatiaren inguruan egindako Kontzientziatzeko Kanpainarik ikusi.

Ondoren, Gizarte Zerbitzuen arloan ludopatiaren diagnostikoa hobetzeko hainbat tresna aurkezten dizkizugu.

7.1. GIZARTE ZERBITZUETAN LUDOPATIA KASU BATI EKITEKO JARRAIBIDEAK

- 1** Eskatzen duten pertsonari, hirian eta probintzian dauden baliabideei buruz, dokumentu bidezko informazio argia helaraztea. Horretarako, interesgarria izan daiteke baliabide ezberdinetara jo eta behar beste informazio jasotzea (baita argibide-liburuxken bat izatea ere).
- 2** Arazoa duela onartzen duen pertsonaren bat, bai aditu baten laguntza bila, bai laguntza-talderen baten berri eskatzera edo tratamenduren bat hasi nahian datorrenean, hitzordua ematea komeni da. Ondoren, lagunduko diolakoan aholkatu diozun baliabidearekin harremanetan jarri beharko zenuke, joan den jakin eta pertsona horrekin lan egin behar bada, Gizarte Zerbitzuek horren jarraipena egin dezaten.
- 3** Ludopatiaren bat egon daitekeelako seinale, zalantza edo susmoak dituzunean, erabili Detektatu ahal izateko ondoren eransten dugun Eskala Txikia.
- 4** Gogoratu, orokorrean, arazo ekonomikoak izaten direla ludopatia detektatzeko aurreneko seinalea. Erne egon honelako eskaeraren bat egiten badizute, eta egiaztatu jokoarekin arazoak dauden ala ez.
- 5** Laguntza ekonomikoren bat jasotzen ari den Ludopatia arazoak dituen pertsonaren bat kasua baduzu, gogoratu jarduneko ludopatek dirua kontrolatzeko arazoak

izaten dituztela. Beste pertsonaren bat (senitartekoa, laguna, erakundea,...) arduratu beharko litzateke haren ekonomiaz.

Askotan, gerta daiteke familia izatea Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske doana. Gehienetan, jokalaria ez du bere arazoa onartuko eta baliteke familia arazo hori jasaten urteak eramatea. Honelakoetan, garrantzitsua izango da familiari entzun eta irtenbidea bilatzen lagunduko dioten profesionalen laguntza eskatzera bultzatzea.

7.2. DIAGNOSTIKOA


JOKOAREKIKO JOKABIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA LORTZEKO GALDETEGIA.

Zenbaitetan, seinalerik egon arren, ez da jokoarekiko portaeraren inguruan hitzeko adierazpen argirik egoten. Honelako kasuetan, honako galdera hauek egitea gomendatzen da:

1. Jolasten du?
2. Zertara jolasten du?. Maiztasuna, eta ematen duen denbora eta dirua.
3. Zenbat denbora darama jolasten?
4. Jazo al zaio gehiegi jolastu izana
5. Arazo ekonomikorik al du? Nolakoa?
6. Zer eskatzen die gizarte-zerbitzuei.

Ondoren, nahikoa seinalerik badago, honako hau erabil dezakezu.

LUDOPATIA DETEKTATZEKO ESKALA TXIKIA. **(Fernández Montalvo, Echeburúa eta Báez, 1995)**



LUDOPATIA DETEKTATZEKO ESKALA TXIKIA.

(Fernández Montalvo, Echeburúa eta Báez, 1995)

Izena:

Data:

1. Zure aburuz, izan al duzu inoiz jokoarekiko arazorik?
 - Bai
 - Ez
2. Sentitu al duzu inoiz jolasteagatik edo jolasten duzunean gertatzen zaizunagatik zeure burua errudun?
 - Bai
 - Ez
3. Saiatu al zara inoiz jolasteari uzten, lortzeko gai izan gabe?
 - Bai
 - Ez
4. Hartu al duzu inoiz etxeko dirurik jolasteko edo zorrak ordaintzeko?
 - Bai
 - Ez

Ludopata izan daitekeena: Galdera hauetako bi edo gehiagori baiezko erantzuna ematen diona, baliteke ludopata izatea edo jokoarekiko arazo larriak edukitzea.

Gizarte Langileak honelako egoeretan erabili beharko du eskala hau:

1. Jolasten duen onartu eta jokoa kontrolatzeko arazoren bat (gehiegi gastatzea, jolasten luze ematea, uzteko gai ez izatea...) duen pertsona bat denean.
2. Ausazko jokoekiko arazoren bat konpontzeko laguntza eske datorren pertsona bat denean.
3. Ludopatiaren seinale susmagarriak daudenean (Auzokideen esamesak, senitartekoan onartzen bada, Ludopatiaren bati dagozkion sintomak daudenean...).

8. BALIABIDEAK

8.2. TRATAMENDUA

ASAJER (Errehabilitazioan dauden Jokalarien Arabako Elkarte)

Alava Jeneralaren kalea, 25 – 1. esk. • 01005 VITORIA-GASTEIZ

Telefonoak: 945 140 468 / 945 234 990 • Faxa: 945 234 990

Helbide elektronikoa: asajer@telefonica.net • Web orria: www.onlinezurekin.org

Ordutegia: Goizez: 10:00etatik 12:30era - Arratsaldez: 16:00etatik 19:00etara (astelehenetik ostiralera)

ALKOHOLISMO ETA LUDOPATIA ZERBITZUA (Osakidetza)

Angulema kalea, 1 • 01004 VITORIA-GASTEIZ

Telefonoa: 945 120 636 • Faxa: 945 283 927

Helbide elektronikoa: csmalcohol@sscc.osakidetza.net

Kontsultak egiteko ordutegia: 8:00etatik 15:00etara (astelehenetik ostiralera)

8.2. BINGO ETA KASINOETARA SARTZEKO NORK BERE BURUARI DEBEKUA EZARTZEA

Jokoetan, hala nola BINGOAN eta KASINOAN, nork bere burua kontrolatzeko arazoak dituzten pertsonei, norbere buruari leku horietan sartzea debekatzea gomendatzen zaie.

BINGOA

Horretarako Eskabide bat bete behar da. Horren bidez haxe eskatuko du: LURRALDE ESPARRUKO BINGO ARETOETAN SARTZEA DEBEKATUTA DUTEN PERTSONEN ZERRENDAN sartzea.

- GIPUZKOA
- BIZKAIA
- ARABA
- EAE

Debekualdia gutxienez 3 hilabetekoa eta gehienez 2 urtekoa izan daiteke. Eskabidearekin batera, NANaren fotokopia aurkeztu behar da.

KASINOA

Bingo aretoekin bezala, honetarako ere Eskabide bat bete behar da, LURRALDE ESPARRUKO JOKO KASINOETAN SARTZEA DEBEKATUTA DUTEN PERTSONEN ZERRENDAN sartzeko.

- GIPUZKOA
- BIZKAIA
- EAE
- ESTATUA

Debekualdia honelakoa izan daiteke: 6 hilabetekoa, urtebetekoa, urte eta erdikoa, 2 urtekoa edota 3 urtekoa. Eskabidearekin batera, NANaren fotokopia aurkeztu beharko da.

NON ESKATU NORBERARENTZAKO DEBEKUA

JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA (Eusko Jaurlaritza)

1. Arabako Lurralde Ordezkaritza

Samaniego kalea, 2 - 5. solairua • 01008 VITORIA-GASTEIZ
Telefonoa: 945 017 020 • Faxe: 945 017 021

2. Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

Kale Nagusia, 2 - 6. solairua • 48001 BILBO
Telefonoa: 946 075 520 • Faxe: 946 075 521

3. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

San Martin kalea, 48 - 1.a • 20005 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Telefonoa: 943 467 125 • Faxe: 943 474 532

ASAJER (Errehabilitazioan dauden Jokalarien Arabako Elkarte)

Alava Jeneralaren kalea, 25 - 1. esk. • 01005 VITORIA-GASTEIZ
Telefonoak: 945 140 468 - 945 234 990 • Faxe: 945 234990
E-posta: asajer@telefonica.net • Web orria: www.onlinezurekin.org

BARNE MINISTERIOA (Estatuko Joko Batzordea)

Cea Bermudez kalea, 35 • 28003 MADRIL
Telefonoa: 91 537 25 89 • Faxe: 91 537 25 83
E-posta: juego@aquiles.mir.es • Web orria: www.mir.es/juego.

9.- JOKOARI BURUZKO ARAUDIA

Makinak, Bingoak, Kasinoak, Boletokak, Apustuak eta Zozketak bezalako jokoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak dira.

Jokoaren inguruan dagoen araudia zehazten dizuegu, ondoren. Horretarako, honela sailkatu dugu:

- **Alderdi orokorrak**
- **Makinak**
- **Bingoak**
- **Joko eta jolas aretoak**
- **Kasinoak**
- **Boletokak**
- **Zaldi-lasterketetako apustuak**
- **Zozketak**
- **Tasak**
- **Apustuak, oro har**

ALDERDI OROKORRAK

4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoak arautzen duena (azaroaren 25eko 237. EHAA).

277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onartzen duena (abenduaren 20ko 245. EHAA).

69/1997 Dekretua, martxoaren 25ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko Jokoen Katalogoa onartzen duen Dekretuko hutsak zuzentzeko dena (apirilaren 15eko 70. EHAA).

MAKINAK

308/1996 Dekretua, abenduaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko jokomakimen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen araudia onartzeko dena (1997ko urtarrilaren 27ko 17. EHAA).

252/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makimen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen araudia onartu zuen Dekretuko hutsak zuzentzeko dena (azaroaren 14ko 219. EHAA).

AGINDUA, 1997ko abenduaren 17koa, Herrizaingo sailburuarena, jolas-makinen eta makina osagarriak baimentzeko jardunbidearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko jolas-makinen, makina osagarrien eta jokorako bestelako instalazio eta sistemen Araudia garatzen duena (abenduaren 30eko 249. EHAA).

AGINDUA, 2002ko ekainaren 27koa, Herrizaingo sailburuarena, B motako joko-makinen prozedurak telematikoki nola tramitatu arautzen duena.

AGINDUA, 2004ko urtarrilaren 23koa, Herrizaingo sailburuarena, jokoaren arloko prozedurak telematikoki nola izapidetu arautzen duena.

EBAZPENA, 2004ko urtarrilaren 23koa, Joko eta Ikuskizun zuzendariarena; honen bidez, jokoaren arloko prozeduren izapide telematikoak arautzen dituen Herrizaingo sailburuaren 2004ko urtarrilaren 23ko Aginduak aipatzen dituen ziurtagirien izapideek eta eskakizunek eduki beharreko ezaugarriak zehazten dira.

AGINDUA, 2006ko martxoaren 22koa, Herrizaingo sailburuarena, joko-makinetako prozeduren izapidetze telematika arautzen duena.

BINGOAK

31/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia onesten duena (otsailaren 23ko 36. EHAA).

32/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia aldatzen duena (martxoaren 7ko 45. EHAA).

JOKO ETA JOLAS ARETOAK

380/1994 Dekretua, urriaren 4koa, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartzeko dena (urriaren 20ko 200. EHAA).

277/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia aldatzeko dena (abenduaren 29ko EHAA).

Decreto 277/2000, de 26 de diciembre, de modificación del Reglamento de salones de juego y salones recreativos (B.O.P.V. de 29 de diciembre, nº).

KASINOAK

AGINDUA, 1979ko urtarrilaren 9koa, Joko Kasinoen Araudia onartzeko dena (urtarrilaren 23ko 20. BOE).

304/1993 Dekretua, azaroaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoan joko-kasinoak jartzea eratzen duena (1994ko urtarrilaren 17ko 10. EHAA).

304/1993 Dekretuko hutsen zuzenketa, (1994ko urtarrilaren 25eko 16. EHAA).

331/1994 Dekretua, uztailaren 28koa, Kasinotarako baimenak dituzten enpresek bete beharreko baldintzak eta kasinoak jarri eta irekitzeko baimenak emateko prozedura arautzen dituen (abuztuaren 10eko 151. EHAA).

BOLETOAK

314/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Boletoen bidezko jokoa arautzen duena (abuztuaren 10eko 151. EHAA).

ZALDI LASTERKETETAKO APUSTUAK

68/2005 Dekretua, apirilaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zaldi-lasterketetako apustuei buruzkoa. (apirilaren 15eko 71. EHAA).

ZOKKETAK

AGINDUA, 1960ko martxoaren 22koa, zozketak eta tonbolak egiteko baimen- eskaerak bete behar duen prozedura behin-behinean arautzen duena (martxoaren 29ko 76. BOE).

AGINDUA, 1991ko irailaren 2koa, Herrizaingo Sailburuarena, konbinazio aleatorioak izenez ezagutzen den joko-modalitatea arautzeko dena (irailaren 13ko 185. EHAA).

1991ko irailaren 2ko aginduko hutsen zuzenketa (urriaren 11ko 206. EHAA).

TASAK

13/ 1998 Legea, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzkoa (uztailaren 20ko 135. EHAA).

AGINDUA, 1998ko uztailaren 23koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioko eta horren erakunde autonomoetako tasak likidatzeko oinarrizko ereduak eta prezio publikoen ordainketa frogagiriak onartzen dituen (abuztuaren 6ko 147. EHAA).

5/2005 Foru Araua, otsailaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoan jokoaren gaineko zerga arautzekoa (otsailaren 28ko 25. ALHAO).

APUSTUAK, ORO HAR

95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onesten duena (maiatzaren 17ko 91. EHAA).